

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



2018-11-14 / 585. ZENBAKIA / 14. URTEA
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA AIURRI.EUS TOKIKOM

Euskaraldia: Herriarren txanda iritsi da

Euskaraldiaren bitartez, azaroaren 23an hasi eta abenduaren 3ra bitarte Andoaingo eta Urnietako gizarteak euskararen erabileran sakontzeko aukera izango du



**Euskaraz bizi eta
hitz egiteko gogoz
dagoena**



**Euskara ulertu eta
hitz egiteko gogoz
dagoena**



**Busti dezagun euskaraz mihia,
hitz gozoez hel dadin belarrira**

Azaroaren 23an abiatuko da Euskaraldia, euskararen erabileraren aldeko ekimen erraldoia. Andoainen eta Urnietan giroa berotuz doa.

MAMI LEBRUN

**Azaroak 25, igandea
19:00
Sarobe AEG. 8 €**

Sarrerak online
eros daitezke

Euskaraldiarekin bat eginik



Kadete mailako txirrindulariak, Allurralde kiroldegia-aren atarian. EUSKARALDIA

Kirolariak Andoaingo Txirrindulari eskolakoek argazki bat baino gehiago atera dituzte, Euskaraldiari atxikimendua erakutsiz.



Leizaran eskubaloiko talde guztiek bat egin dute ekimenarekin. EUSKARALDIA

Kirolariak Leizaran eskubaloiko taldeak azaroaren 1ean jokalariek guztien argazki erraldoia atera zuen, Euskaraldiaren logoa eta guzti.



Emakumezko pala taldea, Andoni Alvarez prestatzailearekin. EUSKARALDIA

Kirolariak Gaztelekuko pilota elkarteak ere bat egin du Euskaraldiarekin. Irudian, emakumezko pala taldea.



Manuel Larramendi Kultur Bazkune-ko kideek taldeko argazkia atera zuten. joan zen larunbatean. AIURRI

Euskararen alde ekiteko prest

Andoaingo Euskaraldia batzordea kultura, kirola eta gizarte mailako herri eragile askoren atxikimendua jasotzen ari da. Euskararen aldeko ekimen erraldoia iristerako, giroa berotzen hasia da. Euskara ahoan izatea, horixe da helburu nagusia



SD Euskalduna taldeko kideak Ubitarte zelaian ateratako argazkian. EUSKARALDIA

Baserritar jantzi- eta aukera zabala eta pertsonalizatua

Keinu

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN
637 283 224
keinundoain@gmail.com

www.txapelasybordados.com www.txapelaketabordatuak.eus

Gaztelo ARTISAU

GOZOTEGI BONBONERIA

Errekalde kalea, 14
URNIETA
943 008 406

Zarautz ibilbidea, 76
DONOSTIA
943 226 584

Euskaraldiarekin bat eginik



Urriaren 31n taldeko argazkia atera zuten ermitan. EUSKARALDIA


Auzoak Goiburun Ahobizi ugari dago, eta argazkirako prest agertu ziren haietako batzuk. Heldu, haur eta gazte, goiburuarrak euskararen alde daude.



AEK euskaltegiko ikasleak. EUSKARALDIA

Euskalgintza AEK euskaltegietako ikasle eta irakasle ugari elkartu ziren, Euskaraldiarekin bat egiten dutela erakusteko. Ahoa eta belarria zabalik izango dituzte, solasean aritzeko prest.

Ahobizi eta Belarriprest txapak soinean



Ezinbestekoa izango da Ahobizi edo Belarriprest txapa soinean eramatea. Andoainen

ikastola edo ikastetxean izena eman zuenak, bertan jasoko du txapa hori. Sanjuanez geroztik kalean izena eman zuenak, honako tokietan eta egunetan jaso behar du txapa:

- Udaletxeko Ataria zerbitzuan, goizeko 08:00etik 14:30era.
- Udaletxeko Kontzejupean: Azaroaren 17an (larunbata) 11:00etik 14:00era, azaroaren 19an (astelehena) 17:30etik 19:00era eta azaroaren 22an (osteguna) 17:30etik 19:00era.



Informazio gehiago andoain-darraeuskaraz.eus edota euskaraldia.eus webguneetan.

Urnietan, igandean

"Euskaraldia eguna" ospatuko dute. 12:00tik 14:00ra, San Juan plazan Ahobizi eta Belarriprest txapak banatuko dituzte.

Euskaraldiarekin bat eginik



Jai batzordekideen argazkia. EUSKARALDIA

Santa Krutz jaietako batzordea Gizarte mailako talde ugari bat egin du Euskaraldiarekin, baita jai batzordeek ere. Argazkian, Santa Krutz jaietako antolatzaileetakoak.



Olagain taldeko txistulariak. EUSKARALDIA

Kultura Herrien Jaian hainbat talde Euskaraldiarekin bat agertu ziren. Askoren artean, Gora Kaletxiki Band taldea edota Olagain txistulari taldea.



EUSKARALDIA IKASTOLAN

400 lagunetik gora izango gara txapa ikastola bidez jasoko dugunak. EREDUGARRIAK ZARETE! MILA ESKER!

www.andoainikastola.eus



KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



**ANDOAIN BIZI
ANDOAIN EROSI
BONO-PINTXO**

AZAROAK 16, OSTIRALA. 19:00-22:00
DJ NEMUX GOIKO PLAZAN
MALKOGARRIYAK ZUMEA PLAZAN

Azaroaren 12tik 16ra bitartean Andoaingo komertzioetan erosketak egiten badituzu, azaroaren 16an egingo den pintxo txapelketako bono "PINTXO+KRIANTZA" bat eskura dezakezu.

Zure saria ballatu eta goza ezazu lehiaketaz!

TXURI BELTZ
MUGA TABERNA
AMAMA KLAUDIA
ZERU TABERNA
TXITBAR
LANBROA TABERNA
ANAIK TABERNA
HIRU JATETXEA
OLLOKI TABERNA
AKER BELTZ TABERNA

S2 SALKIN
bertatik bertara

**KUTXA EKOOGUNEA
HAUR PARKEA**

943 55 2020
www.ekogunea.eus

Rekalde-Hernani z/g
(GI-2132, 2.km)
20009 Dongotia

kutxa FUNDACIA



ZABALIK

BINGEN ZUPIRIA EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILBURUA

11 egun euskararen oraina aldatzeko

Euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean hainbat tokitan dagoen aldea gainditzea da, seguruenik, euskarak gaur egun duen erronkarik potoloenetako bat. Hori lortzeko, baina, ez dago formula magikorik.

Gure egunerokoan hainbat faktorek azal dezake biziberritze prozesuetan ohikoa den egoera hori. Eman dezagun seme-alabekin hitz egiteko euskara ikasi duen pertsona baten kasua: zer behar du etxetik kanpo esparru gehiagotan ere erabiltzeko? Zer behar du Gasteizko gazte koadrila batek euskara nagusi izan dadin beren arteko harremanetan, unibertsitateko beren ikaskideekin den bezala? Zer, Bilbo Handiko dendari batek egunero hartzen dituen ehunka bezero euskaldunek

euskaraz hitz egin diezaioeten? Edo zer behar da normalean euskaraz ari ohi diren lankideek euskaraz hitz egin diezaioeten Andoaingo euskaldun hartzaile bati?

Euskararen eta gaztelaniaren arteko hautua egunero-egunero aurkitzen dugu gure aurrean, eta inguru soziolinguistikokoaren pisuak, hizkuntza-ohituren eraginak edota motibazioak sarri baldintzatzen dute aukeraketa. Faktore hauetan eragin eta euskararen erabilerari bultzada sendo bat ematea da Euskaraldia

EUSKARALDIAK PIZGARRI BAT IZAN NAHI DU EZAGUTZATIK ERABILERARAKO PAUSUA EMATEKO

ekimenaren helburua. Bi hitzetan: hiztunak aktibatzea. Euskaraldiak pizgarri bat izan nahi du jende askok leku askotan ezagutzatik erabilerarako pausoa eman dezan. Proposamen bizigarria zubi bat eraikitzeko, ezagutzaren eta erabileraren arteko amildegia gainditzeko.

Euskaraldia proiektuak 11 egunetan euskaraz inoiz baino era aktiboagoan aritzeko proposamena egiten digu, hizkuntza-ohiturak aldatzeko eta euskararen erabilera suspertzeko mugarri bat izan daitekeelakoan. 264 ordu euskararen oraina iraultzen hasteko. Soluzio magikoa dirudi, baina saiakera egin duten herrietan argi daukate. Orain, euskararen lurralde guztietako hiztun guztioi dagokigu. Euskaraldiak batu egingo gaitu.

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebez ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 37 eurokoa da. Umietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain.
Tel.: 943 300 732.
Faxa: 943 300 731.
andoain@aiurri.eus.
www.aiurri.eus.

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Olatz Lasa, Andoni Urbistondo.
Maketatzaillea: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Umietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale, astero.
Zenbaki berezi honetakoa: 9.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

AIURRI ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EKOIZLEA:



ALJATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



ZIURTAGIA:



BABESLEAK:



Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

PROTAGONISTA: EUSKARA LAN MUNDUAN

"Hornitzaileei euskaraz lan egiteko aukera ematen diegu"

MIKEL LAZKANO LATZ KOOPERATIBAKO EUSKARA KOORDINATZAILEA

Olatz Lasa ANDOAIN

DanobatGroup taldearen barnean dago Andoaingo Latz kooperatiba. Euskara oso presente dute egunerokoan, eta baita administrazio kontuetan ere. Euskaraldia badatorrela eta, urrian proba modura bost egunez euskaraz jardun zuten.

Noiztik zabilzate euskararen erabilera indartzen Latzen?

2005 urtean hasi ginen aholkularitzarekin. Langileen %70a euskaldunak ginen, eta erabat euskaraz egiten genuen gure artean. Ahozkoan lantzen genuen hori, paperera eramane nahi genuen eta geroztik pixkanaka lan munduan euskara erabiltzen hasi gara. Lehen paperean dena gazteleraz idazten genuen, egun euskaraz idaztera pasatzen ari gara.

Kooperatiba izateak laguntzen al du horrelako ekimenak aurrera eramateko orduan?

Ez da nagusiak derrigortzen duen zerbait lanean euskaraz jardutea. Erabakiak denen



Mikel Lazkano, Jesus Mari Beroz, Yolanda Mingo eta Iñaki Irulegi Latz kooperatibako kideetakoak dira. Laurak Ahobizi arituko dira, hastear den Euskaraldian. AIURRI

artearen hartzen ditugu langileok, eta horrek implikazio handia eskatzen du. **Zer prestatu duzue Euskaraldiako eguneratako?**

Danobatgroup taldean sartuta gaude, eta enpresa barnean

Euskaraldia ekimeneko entsegu modukoa egin genuen urrian, 5 egunez. Emaiza onak eman ditu probak; eta kontzientziatzeko balio izan digu. Bestetik, Euskaraldiaren baitan

kanpaina pixka bat egiteko asmoa dugu jendeak beren herrietan antolatutako ekimenetan parte har dezan. **Enpresa barruko ekimena izan da edo hornitzaileekin ere euskara sustatzen ari zarete?**

Latzeko euskara planaren barruan antolatu dugun ekimena izan da. Euskara plana duten hornitzaileekin hasi gara dokumentazio guztia euskaraz bidaltzen, hala nola albaranak, fakturak... Euskal Herri mailan ditugun hornitzaileei gurekin euskaraz lan egiteko aukera ematen diegu. Modu horretan, hornitzaileekin ere euskaraz lan egiteko ohitura zabaltzen ari gara.

Zein mezu zabalduko zenieke inguruko enpresei lanean euskararen munduan murgiltzeko?

Euskaraz egitea besterik ez dela. Egun sistema informatiko gehienek euskaraz lan egiteko aukera ematen dute, eta horretarako aukera edukiz gero, anima daitezela.

Gurean behintzat asko hitz egiten da euskaraz. Ohitura hori paperera pasatzea falta zitzagun eta pausu hori jada eman dugu. Gainerako enpresak ere animatzen ditut euskara gehiago erabiltzeko salto hori ematera.

ERREDAKZIO MAHAIA

Aiurri berezia Euskaraldiaren atarian



Aiurri astekariko eta hamaboskariko lantaldeak bat egin du Euskaraldiarekin. Irakurle, eskuarteaz duzun astekari honen banaketa ezohikoa izango da. Andoaingo eta Urnietako etxebizitza guztietan banatuko baita. Andoaingo Udaren eta Euskaraldia batzordearen laguntzarekin, astekariko orrialdeetan tarte berezia eman diegu euskararen transmisioan garrantzia handikoak diren gurasoei. Bi herrietako lehen hitzorduak argitaratzeaz gain, Ahobizi eta Belarriprest txapak eskuratzeko argibideak ere bertan aurki daitezke.

Aiurriko harpidedun ez bazara, jakin ezazula astero-astero bi herrietako albisteak zabaltzen ditugula. Paperean eta internet sarean, Aiurri euskaraz bizitzeko tresna osagarria da. Eta gertukoa.

INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMAK ERREPARAZIOAREN BIDEZ ARTATU

JARDUNALDIAK BASTERON - AZAROAK 22, OSTEGUNA

Doako jardunaldia da baina izena eman behar da: labur.eus/BerdinAndoain

09:15

Harrera

09:30-10:00

Irekiera ekitaldia

Ana Carrere eta Eukene de Miguel Eudeleko teknikariaren adierazpenak.

10:00-10:30

Ikus-entzunezkoa

Bertha Gaztelumendiren "Volar" filmaren zati batzuk eskainiko dituzte.

10:30-12:00

Solasaldia

Elena Laporta eta Lorena Garrido legelari feministak.

12:30-14:00

Solasaldia

Graciela Atencio Feminicidio.net ekimeneko kidea edota Rafa Sainz Arartekoko ordezkaria hizlari antuko dira

16:00-18:00

Gogoeta

Udaleko Gizarte Zerbitzuakako ordezkariak erreparazioarako neurri indibidualez hizketan arituko dira.

18:00-18:30

Klownklusioak

Emakunde saria jasotakoa den Virginia Imaz pailazoak jardunaldi osoan entzundakotik ondorioak aterako ditu.



ANDOAINGO UDALA

Emakume eta Gizonen Berdintasun lansaila

Urtan Etxea: 09:00-15:30
943 300 830 (ext.397)
berdintasuna@andoain.eus
@BerdinAndoain





VANESA ROMERO
BELARRIPREST

**"HELDUEN ALDETIK
ANDOAINEN EUSKARA
GEHIAGO HITZ EGITEA
BEHARREZKOA DELA
IRUDITZEN ZAIT"**



DANI CASTAÑO
AHOBIZI

**"EUSKARALDIAREKIN
EUSKARAZ HITZ
EGITEKO LOTSA
DUTENEK HASTEKO
AUKERA DUTE"**



NAROA EZEIZA
AHOBIZI

**"DAKITENEK HITZ
EGIN DEZATELA, EZ
DAKITENEK IKASTEN
HASI ETA INTERESA
ERAKUSTEKO"**



GARAZI SARRIEGI
BELARRIPREST

**"EKIMEN BERRIA
IZATEAN, JENDE
GEHIAGO ANIMATU
DAITEKE EUSKARAZ
HITZ EGITERA"**



HENAR HERRANZ
AHOBIZI

**"HAURREKIN
EUSKARAZ BAI, BAINA
HELDUEN ARTEAN
JOERA ERDERAZ
ARITZEKOA DA"**

Animoz beteta daudenen efektu biderkatzailea

Andoaingo Ondarreta ikastetxean lekukotza emateko boluntarioak ez dira falta. Lau lagunekin hitzordua ipini, eta zazpi hurbildu dira. Oro har, denek ere gurasoengan jartzen dute euskararen erabilera sustatzeko erantzukizuna



FERNANDO SERNA
BELARRIPREST

**"EUSKALDUN ZAHAR
ZEIN BERRIAK
ELKARTU ETA
EUSKARARI BULTZADA
EMATEA POLITA DA"**



LORENA CABEZAS
BELARRIPREST

**"GURASOON
ZEREGINA BADA
HAURREKIN
EUSKARAZ HIZKETAN
ARITZEA"**

Amaia Senperena ANDOAIN

Oro har, guraso guztiak jakitun dira erantzukizun handikoa dela hizkuntzaren aurrean hartzen den jokabidea.

Vanesa Romero, Belarriprest

Helduen jokabideari erreparatzen dio: "Andoainen euskara gehiago hitz egitea beharrezkoa dela iruditzen zait. Helduen aldetik gehienbat. Horregatik hartuko dut parte Euskaraldian".

Dani Castaño, Ahobizi

Animoz beterik dago: "Jendea gogoz ikusten dut, eta hori garrantzitsua da. Ekimena, gainera, ondo dagoela esango nuke. Pixkanaka hitz egitera animatzeko modu polita da".

Naroa Ezeiza, Ahobizi

Euskaraldia behar-beharrezkoa du, ingurua euskalduntzen hasteko: "Etxean euskara hitz egiten duen bakarra naiz, beraz

oso zaila egiten zait egunerokotasunean euskaraz aritzea. Inguruko guraso zein hurrek euskaraz hitz egingo balute, errazagoa izango litzaidake".

Garazi Sarriegi, Belarriprest

Belarriprest txaparekin ibiliko da, hamaika egunez: "Garrantzitsua da gurasook euskaraz aritzea, hurrek ere euskaraz egin dezaten. Ez baikara konturatzeko erdaraz gabiltzala".

Henar Arranz, Ahobizi

"Hurrekin beti hitz egiten dugu euskaraz, baina helduen artean joera erdararantzkoa da. Beraz, euskara sustatzera datorren edozein ekimen esku zabalik jasoko dut".

Fernando Serna, Belarriprest

Beste batzuri gertatu bezala, Ahobizi edo Belarriprest aukeratzeko orduan, tartean geratu da: "Ahobizi izan naitekela iru-

ditzen zait, baina hasiera batean Belarriprest bezala hasiko naiz. Euskaraldia amaituta, euskaraz ikasten jarraitzeko asmoa daukat. AEKn izena eman dut".

Lorena Cabezas, Belarriprest

Kaleak euskaraz betetzeko deia egin du: "Kalean erdaraz izugarri entzuten da: heldu zein hurren artean, parkean, etab. Hori gerta ez dadin gurasoen lana hurrekin euskaraz egitea da".



Plazaola, 23 - 20140 Andoain
Tel.: 943 300 078
Faxa: 943 300 578
012740aa@hezkuntza.net
www.leizaran.net



EÑAUT EGAÑA
ANDOAINGO HAMAIAKAKOA

**"EUSKARALDIA
AUKERA OSO POLITA
DA GURE INGURUNEA
PIXKA BAT GEHIAGO
EUSKALDUNTZEKO"**



ANA CARRERO
ANDOAINGO HAMAIAKAKOA

**"SAIATUKO NAIZ
EUSKARAZ GEHIAGO
HITZ EGITEN, BAINA
GAZTELERAZ HOBETO
MOLDATZEN NAIZ"**



LEIRE REKALDE
ANDOAINGO HAMAIAKAKOA

**"HASIERAN ZAILA
DELA IRUDITUKO ZAIE,
BAINA ERDALDUNEI
PIXKANAKA HASTEKO
ESANGO NIEKE"**



MERCE BRAU
ANDOAINGO HAMAIAKAKOA

**"INGURUAN GEHIENEK
EUSKARAZ EGITEN
DUTE ETA EUSKARA
ULERTU BEHAR NUELA
ERABAKI NUEN"**



OLIVIA CABALLERO
ANDOAINGO HAMAIAKAKOA

**"EUSKALTEGIAN HASI
NINTZEN, BESTE
HAURREN GURASOAK
EUSKARAZ ARI ZIRELA
IKUSITA"**



ESTEBE LOPEZ DE MUNAIN
ANDOAINGO HAMAIAKAKOA

**"SAIAKERA
EGIN DEZATELA,
EUSKARA GURE
KULTURAREN
PARTE DELAKO"**



EUGENIO DELGADO
ANDOAINGO HAMAIAKAKOA

**"HIZKUNTZA
ALTXOR BAT DA.
ABERASTU
DEZAGUN
GURE BIZITZA"**



INES MIRON
ANDOAINGO HAMAIAKAKOA

**"EUSKARALDIAN
BELARRIPREST
IZATEKO
KONPROMISOA
HARTUKO DUT"**



IÑAKI ZABALETA
ANDOAINGO HAMAIAKAKOA

**"EUSKARA
MUNDUA
IKUSTEKO
BEGIRADA
BAT DA"**



INMA CIRES
ANDOAINGO HAMAIAKAKOA

**"EUSKARA
ABERATSA DA,
KOMUNIKATZEKO
ETA KULTURAREN
BERRI IZATEKO"**



IZASKUN AIZPURUA
ANDOAINGO HAMAIAKAKOA

**"EUSKAL
KULTURAN GURE
ARTEAN SORTZEN
DEN BATASUNA
DA POLITENA"**

EUSKARALDIA
11 EGUN EUSKARAZ
2018ko azaroaren 23tik
abenduaren 3ra

**ANDOAINGO UDALA
EUSKARALDIAREKIN
BAT**

IBON ELIZASU
AHOBIZI

**"EUSKARALDIAK
BALIOKO DIT AKUILU
MODUAN, IZAN NADIN
LAGUNGARRI BESTE
ASKORENTZAT"**

XOLE IRIGORAS
AHOBIZI

**"NIRE ADINEKO
JENDE ASKOREN
SEME-ALABAK
ELEBIDUNAK DIRA,
BAINA GURASOAK EZ"**

MAXI MEYER
BELARRIPREST

**"ME CUESTA HABLAR
EN EUSKERA PERO SI
VAMOS DESPACIO CON
PALABRAS SIMPLES,
PUEDO RESPONDER"**

JIMMY BROSÁ
AHOBIZI

**"EKIMEN HERRIKOIA
DA, ETA ASKEA.
PARTE HARTU ALA EZ
NORBERAK
ERABAKITZEN DU"**

MARI MAR MORA
BELARRIPREST

**"EUSKARAZKO
ADITZAK ZUZEN
ERABILTZEA
ESFORTZU HANDIA DA
NIRETZAT"**

Transmisioa nekez egingo da gurasorik gabe

Euskararen erabilera eskola orduetara bakarrik bideratuz gero, akatsa litzateke. Akats handia. Euskara egunerokoan erabil daitekeen hizkuntza baita: Eskolan, aisialdian eta etxean. Euskararen transmisioan gurasoen parte hartze aktiboa ezinbestekoa da

Olatz Lasa, Amaia Senperena ANDOAIN
La Salle Berrozpe ikastetxeko, Leizaran institutuko eta Aita Larramendi ikastolako gurasoen artean Euskaraldiarekiko gertutasun handia dago.

Ibon Elizasu, Ahobizi

"Ez naiz mota hauetako ekimen zalea. Ahobizi naiz aspalditik, ahal dudun neurrian eta nire akatsekin. La Salleko Aitor Azurmendik hots egin zidan. Niretzat

egunerokotasunean egiten dudana egiten jarraitzea da, bidean dagoenari laguntzeko ere bai, noski. Agian ere balio dit noizbait kontziente izateko ez garela beti Ahobizi izaten. Lanean, lanetik kanpo edota lagunartean erdarara jotzen dugu eta Ahobizi izateari uzten diogu. Euskaraldiak balioko dit akuilu moduan, eta lagungarri izan nadin beste askorentzat". Euskaldunen artean kritika egiteko aukera baliatu

nahi du: "Euskararen inguruan hitz egiteaz nazkatuta nago. Egin behar dena da euskaraz hitz egin. Baita ere norberak bere buruari autokritika eginez. Nire kasuan ez dut beti eta eremu guztietan euskaraz hitz egiten, eta naturaltasun osoz egin beharko litzateke. Gainontzean, ondo daude horrelako ekimenak. Batzuetan kritikoa naiz. Orain dela urte batzuetatik ofiziala den hizkuntza delako. Hortik aurrera esaten

den guztia soberan dago. Euskara erabili egin behar da, errealitatea zein den jakinda. Baita herri honetan ere. Pasaia Antxokoa naiz, eta hamar urte daramatzat Andoainen bizitzen. 47 urte ditut, eta asko harritzen nauena da adin horretatik nahiko behera oraindik ere zein urrun dagoen jende asko euskaratik. Eta horiek, aukera edukita, euskara egunerokoan ez erabiltzea erabaki dute. Hor bai naizela kritikoa".

Xole Irigoras, Ahobizi

Ez du aipatu gabe utzi nahi hizkuntz disglusia: "Ez ginen elebidun irten eskolatik eta nire adineko jende askoren seme-alabak elebidunak dira, baina gurasoak ez. Eta gainera, euskara pixka bat dakiten guraso horiek ez dira ausartzen hitz egiteko pausua ematera. Nire parte-hartzea hortik doa: Guraso horien lehen hitzak behintzat euskaraz izan daitezela bultzatzea". Horregatik beharrezkoa ikusten du Euskaraldia: "Oso baliagarriak dira mota horretako ekimenak. La Salle Berrozpeko Gurasoen Elkarteko euskara arduraduna naiz. Euskara eskolaz kanpoko ekintza gisa daukagu, eta astean bitan kanpotik hona etorritako haurrei edota etxean euskara

hitz egiten ez dutenei laguntzeko. Horrelako ekintzak ikustea berarentzat oso garrantzitsua delakoan nago".

Maxi Meyer, Belarriprest

"Llevo dieciocho años en Euskadi. Hice un año y medio en el euskaltegi y lo tuve que dejar por temas de trabajo. El Euskaraldia me servirá para seguir mejorando con el euskera. Me cuesta hablar en euskera, pero si vamos despacio, con palabras simples, puedo responder. Cuando le dije a toda la gente que estaba estudiando euskera se alegraron. El carnicero dejó de hablarme en castellano, en la panadería y en la pescadería también... Denek euskaraz egiten zidaten.

La falta de identidad que tenía en Argentina como pueblo lo he encontrado aquí. Animaría a la gente a que participara en Euskaraldia. Es como abrir la mente a algo que no conoces. A veces lo desconocido te da un poco de miedo, pero te abre muchas puertas".

Jimmy Brosa, Ahobizi

Euskaldun berria da, eta Euskaraldian parte hartzeko gogotsu dago: "Euskara ikasi nuen beste batzuen laguntzarekin. Euskaraz



KORO BARBERO
BELARRIPREST

"PISKANAKA BANOA IKASTEN. GUZTIA ULERTZEN DUT, BAINA HITZ EGITEA GEHIAGO KOSTATZEN ZAIT"

aritzeko beharrezkoa da inguruko laguntza. Ahobizi aritzea inguruko jendea ezagutzeko beste aukera bat da. Harreman berriak sortzea ere polita izango da. Eta batez ere, euskara ikasten ari den jendearekin, ni orain nagoen bezela, hemendik urte batzuetara katea jarraitzeko".

Euskaraldiarekin erabat identifikatzen da: "Batez ere oso herrikoia delako. Partaidetza askea da, parte hartu ala ez norberak erabakitzen du. Euskaraldian parte hartzea animatzen ditut laguntza eskaini dezaketenak. Jendeak eskertuko du. Laguntza hori jaso duenarentzat oso naturala izango da ekimena. Oso ondo egongo da".

Mari Mar Mora, Belarriprest

Leizaran institutuko gurasoak euskaraz bizitzeko jarrera aktiboa hartu du: "Osakidetzan lan egiten dut, eta saiatzen naiz nire egunerokoan euskara erabiltzen. Aisialdian euskaraz hitz egiten



DIEGO BARRASA
BELARRIPREST

"EUSKARAZ GUTXI JAKITEA EZ DA TXARRA, HOBETZEKO ASMOA BALDIN BADAGO"

saiatzen naiz, baita azokara joaten naizenean ere. Euskaraz hitz egiten badidate, euskaraz erantzuten dut. Nire buruak gaztelaraz funtzionatzen du, eta hortaz esfortzu handia egin behar dut euskarazko aditzak zuzen erabiltzeko garaian". Ama izateak euskara ikasi eta praktikatzeko joera areagotu zion: "Ludotekara joaten nintzen haurrekin, eta bertan ekintza ezberdinak egiten genituen euskararen inguruan, hala nola jokoak, abestiak...". Euskaldun berria da, eta mintzapraktikaren garrantziaz ohartuta dago: "Euskara erabiltzeari utziz gero, zaila da berriro ere martxan hastea".

Koro Barbero, Belarriprest

"Pixkanaka banoa ikasten", dio Barberok: "Guztia ulertzen dut, baina hitz egitea gehiago kostatzen zait. Nire alaba Leizaran ikastetxean ikasten ari da, eta semea Ondarretan. Haien bitartez Euskaraldian baiezkota eman



EDURNE IZETA
AHOBIZI

"EZAGUTZEN EZ DUDAN HORRI LEHEN HITZA EUSKARAZ EGITEA IZANGO DA NIRE ZEREGINA"

dut hasieratik, ideia ona iruditzen baitzait. Euskara praktikatzeko modu ederra delakoan nago. Niri euskaraz hitz egiteko eta nik euskaraz hitz egiteko aukera polita izango da".

Diego Barrasa, Belarriprest

Aita Larramendi ikastolako gurasoa da eta Belarriprest modura arituko da Euskaraldian. Ahalik eta gehien euskaraz aritzeko ahalegina egiten ari da, are gehiago guraso denetik: "Euskaraz egitea gogoko badut ere, nire ingurua erdalduna denez, ez dut askotan hitz egiten. Umeekin bai, euskaraz egiten dut. Baina lagunekin gaztelara jotzen dut. Ohitura kontua da, eta Euskaraldiarekin hori aldatzen saiatu behar dugula iruditzen zait. Gutxi jakitea ez baita txarra, hobetzeko asmoa baldin badago". Euskaraldiarekin euskaraz hartuko duen bultzada gogoko du: "Egun horietan kontzientzia handiagoa



MARTA DIEZ
BELARRIPREST

"GURE GUZTION ARTEAN EUSKARA NORMALIZATU BEHARKO GENUKE"

izango dugu eta, behin igarota, polita litzateke euskara gehiago erabiltzera ohitzea".

Edurne Izeta, Ahobizi

Belarriprest direnei euskaraz aritzeko gogotsu dago: "Nire ama hizkuntza euskara da eta etxean ere guztiok euskaraz ulertu eta hitz egiten dugu. Interesgarriak iruditzen zaizkit horrelako ekimenak gehienbat, euskararen erabilera bultzatzeko. Ezagutzen ez dudan horri lehen hitza euskaraz ematea izango da nire zeregina. Joera beti baita errara joatea. Alde horretatik, ariketa polita izan daitekeela iruditzen zait".

Marta Diez, Belarriprest

"Niretzat, euskara kultura eta hezkuntza da. Kanpotik etorri naiz, eta orain Euskal Herrian bizi naizenez, normalizat hartzen dut Euskaraldia bezalako ekimen batean parte hartzea. Positiboa baita familia handia bagina be-



IBAN MUÑOZ
AHOBIZI

"TXAPA SOINEAN ERAMATEAK EUSKARAREN ERAGILERAN LAGUNDUKO DU"

zala euskara normalizatzea. Hizkuntza, kirola, mendia,... edozer gauza ingurukoekin partekatzen dugun bezala, gure artean ere euskara normalizatu beharko genuke". Argi dauka euskaraz gehiago hitz egiten saiatuko dela: "Euskaraldia euskara erabiltzera bultzatzeko modu polita da. Pixkanaka gehiago hitz egiten hastea da gakoa, nire ustez. Nik euskarazko hitzen bat ikasten badut, nire egunerokotasunean erabiltzen saiatzen naiz".

Iban Muñoz, Ahobizi

"Belarriprest txapa duenarekin, adibidez, lehen gaztelaraz egingo zenioke eta orain euskara erabiltzea polita izango da. Biak ekimen batean gaudela ikustean, elkarrizketa sor daiteke eta hori oso polita da. Agian, berriak ere sortuko dira Euskaraldian zehar. Txapa soinean eramateak horretara lagunduko duela esango nuke".

2019 50 urte

EUSKARALDIA
1. EGUN EUSKARAZ

ondarreta ikastetxea
ANDOAIN

EUSKARALDIAREKIN BAT

ORMENDI KIROLAK

Kale Berria, 2
ANDOAIN
943 591 806

ormendikirolak@euskalnet.net

Ernaitza
liburudenda

Zumea, 9
ANDOAIN
943 592 459
ernaitza@yahoo.com

LI

Arropa eta osagarriak

Kale Nagusia 6
Andoain
Tel. 943591224



MIGUEL ANGEL MINGUEZ
BELARRIPREST



IZARO EGAÑA
AHOBIZI



IMANOL AZURMENDI
AHOBIZI



LAURA MONTEIRO
BELARRIPREST



JAIONE LASARTE
AHOBIZI

**"URNIETAKO
GAZTEEN ARTEAN
EUSKARA ZERGATIK
EZ DUTEN ERABILTZEN
AZTERTUKO NUKE"**

**"EUSKARALDIAREN
BERRI IZAN
NUENETIK BANEKIEN
PARTE HARTUKO
NUELA"**

**"EUSKARAZ ARITZEA
PAREAN DUZUN
LAGUNAREKIKO
TXIP-A ALDATZEA
BAINO EZ DA"**

**"EUSKALTEGIAN ARI
NAIZ. ALABAK ESAN
DIT BELARRIPREST
BAINO AHOBIZI IZAN
NINTEKEELA"**

**"GURASOA NAIZ,
ETA GAZTEEN KALEKO
HARREMANETAN
EUSKARA SARRIAGO
ENTZUTEA NAHI NUKE"**

Euskaraldia abiatzeko gogo biziz daude

Barne bulkada izaten da askotan, kanpotik datorren estimulua beste batzuetan. Euskaraldian bat egingo dute euskara ahoan dutenek, eta mihian izan nahi dutenek. Indar metaketa horrekin euskara ez da galduko, eraldatu baizik. Erabileran biderkatzeko

Andoni Urbistondo URNIETA

Euskaraldiaren hazia lantzen ari dira azken asteetan, Urnietako batzordearen ekimenez bereziki. Hazi horretatik aterako den landarea laster loratuko da, azaroaren 23an hasita. Euskaraz etorkizunean zuztar sendoak izateko, herrikide askok hizkuntza lantzeari ekin behar dio. Animoa ez da falta, hainbat gurasoren lekukotzari erreparaturaz gero.

Miguel Angel Minguez BELARRIPREST

Euskaraldia oso ekimen positiboa iruditzen zait euskara aktibatzeke, batez ere Urnietan bezalako herrietan, non gaztelania nagusi den. Nire ustez halako ekimenak denboran luzatu beharko lirateke, egunen batean, ahalik eta herritar gehienok Belarriprest edo Ahobizi garela esan gabe, euskaraz jarduteko gai izatea lortu ahal

izateko. Pertsonalki, Urnietan haur eta gazteek gaztelaniara hain erraz zergatik jotzen duten ikertuko nuke, ze potentziala, egon, badago. Euskaraz jakitea da zailena, nire ustez, baina Urnietako gazte gehienek, denek ez bada, badakite euskara. Baina ez dute erabiltzen.

Hori zergatik gertatzen den ikertuko nuke, eta soluzioa ematen saiatu. Oinarria, egon, badagoelako.

Belarriprest, zergatik?

Euskararekin zor bat daukatela uste dudalako. Ni bertakoa naiz, euskal herritarra, eta gehiago egin nezakeela sentitzen dut. Zerbait, ahal dudana aportatzeko unea dela uste dut, eta horregatik animatu naiz.

Euskara hobetuko al den itxaropenik ba al duzu?

Bai, baina halako ekimenak denboran luzatzen badira, denok laguntzen badugu. Eguneroko ekimena behar du izan, kanpaina berezietz harago. Lehen hitza euskaraz egiten badugu, ikaragarri aurreratzeko dugu. Elkarriketa bat euskaraz hasten badugu, antzera, gaztelaniara pasatzeko beharra daukagun arte. Hasiera hori euskaraz izatea funtsezkoa da. Belarriprest izateak zure solaskideari, edo inguruari, jakinarazten dio ulertzeko gai zarela, baina mantso mintzatu behar dizutela. Ni El-duan aritzen naiz lanean, paper enpresa batean, eta lankideen %95 euskal hiztunak dira. Haiek ni belarriprest naizela ikustean nire euskara ere hobe daitekeela uste dut.

Izaro Egaña AHOBIZI

Euskaraldia oso ekimen polita da. Entzun nuenetik, parte har-

tuko nuela banekien. Hamaika eguneko kontua da, agian motz samarra geratuko dena, baina egiten dugunok grinatsu aritzen bagara, lortu dezakeguna gauza handia izan daiteke. Horretaz aparte, aurrerantzean jarrai litekeen bide baten hasiera ere izan liteke.

Zergatik Ahobizi?

Uneoro euskaraz aritzeko gogoagatik eman dut izena, ze gaztelaniara jotzeko joera ikaragarria dugu. Kontzientzia handiagoa hartuko dugulakoan nago, eta horrekin inguruko jendea kutsa dezakegu, haiek ere euskaraz aritzera animatzea.

Ahobizi sentitzen garenon artean ez dut oso iritzi baikorrik sumatu. "Hamaika egunez egiteak ez du ezertarako balio, eta nik ez dut egingo" eta antzekoak, baino Belarriprest hautatu dutenen artean ausardia handiagoa sumatu dut, eta ekimen honetan haiek garrantzitsuagoak dira, besteok baino ahalegin handiagoa egin behar dutelako. Identifikatuagoak daudela dirudi.

Euskara saretzeko balioko al du?

Baietz esango nuke, dena euskaraz egingo dudalako, toki batera edo bestera joan. Euskaraduna izan, baina gaztelaniara jotzeko joera duenak, euskaraz hitz egingo du, eta horrek, berez,



BASERRIKO PRODUKTUAK

www.mahala.eus

info@mahala.eus

943 670 724





AMAIA RINCON
BELARRIPREST

"EUSKARALDIAK EUSKARAZ ARITZEKO GARAIA BELDURRAK UXATZEN LAGUNDUKO DIGU"

aurrerapausoa suposatuko du. Txikia, baina aurrerapausoa.

Imanol Azurmendi Ahobizi

Ekimen polita, euskararen erabilari bultzadizo bat emateko aproposa, modu errazean. Bi hizkuntzatan aritzen garenok joera daukagu gaztelaniara jotzeko, eta ekimen honekin, euskara ikasten ari direnei indartsu jarraitzeko mezua zabaltzen lagun dezakegula esango nuke. Gutzirekin pixka bat egin daiteke, eta pixka bat asko elkartuz gero, asko lortuko dugu. Pareko lagunarekiko txipa aldatzea baino ez da.

Zergatik Ahobizi?

Normalean gaztelaniaz aritzen naizen pertsona batekin euskaraz aritzea lortuta, konforme nengo. Erronka hori lortze aldera, aletxo hori jartzeko asmoz eman dut izena ekimeneari.

Euskara saretzeko balioko al du? Normalean bai. Gehiegi ere ez, baino pixka bat hobetzen bada, ongietorria izango da.

Laura Monteiro Belarriprest

Ondo iruditzen zait. Jendea normalean ez da euskara hitz egitera animatzen, eta ekimen hau oso aproposa da ikasten



JOXERRA DE LA RICA
AHOBIZI

"EUSKALDUNBERRI GARENOK ARMAITURIK ATERATZEKO AUKERA ONA IZANGO DA"

ari garenontzat. Gustatu zait jarduera, eta izena eman dut. Lehen aldia da, ikusiko da zenbateraino den eraginkorra, baina 11 egun epe polita da jendea animatzeko. Gero geroakoak.

Belarriprest, zergatik?

Euskaltegian ikasten ari naiz eta ondo moldatzen naiz euskaraz. Alabak ere esan dit, Belarriprest baino Ahobizi ere izan nintekeela, baina nahiago izan dut Belarriprest izan, jendeari niri euskaraz zuzentzeko asmoz. Ni urnietarra naiz, eta ezagunak diren gurasoak normalean gaztelaniaz hitz egiten didate. Belarriprest naizela ikusten badute, batzuk, edo askok, euskaraz egingo didate lehen hitza. Ahobizi iritsiko da, ze bi haurrekin dena euskaraz hitz egiten dut etxean.

Euskara saretzeko balioko al du?

Handituko da, zeren eta atzera ezin du egin. Nigana gaztelaniaz zuzentzen zen norbait aurrerantzean euskaraz arituko balitz, ni konforme!

Jaione Lasarte Ahobizi

Ekimen garrantzitsua euskaldunon elkar bidean euskara sustatzeko. Batez ere gazteen artean, internet eta sare sozia-

lekin gaztelaniarako joera handia baitago. Ni gurasoa naiz, eta gazteen kaleko harremanetan ere euskara sarriago entzutea nahi nuke, ez bakarrik ikastolan daudenean. Hasiera baino ez da, baina garrantzitsua. Borroka luzea izango da, eta jarraikortasuna beharko duena, hizkuntza itzaltzen joatea nahi ez badugu.

Zergatik Ahobizi?

Ni euskaldun zaharra naiz, baina ikasketak gaztelaniaz egin nituen. Joera handia dut elkarriketetan gaztelaniara jotzeko, eta nire burua behartzeko, edo erronka batzuk jartzeko, ahalik eta tarte handiena euskaraz hitz egitea erabaki nuen. Nik, eta nirekin hitz egiten dutenekin, ahal den guztietan euskaraz hitz egiten saiatuko naiz.

Zure euskara sarea zabaltzeko balioko al du?

Ikusiko da, baina helburua hori den neurrian, baiezkoan nago.

Amaia Rincon Belarriprest

Eskola garaian euskaraz mintzatzen nintzen tarteka, baina nire inguruan gaztelania da hizkuntza nagusia. Horrek euskara ahaztea eragin dit. Egoera aldatzeko, Belarriprest izatea erabaki dut.

Zer iruditzen zaizu Euskaraldia?

Ni bezalakozentzat oso lagungarria izango da. Euskaraz ondo hitz egiteko gai ez izateak, euskaraz ez hitz egitera eramaten gaitu. Euskaraldiak beldurra uxatzen lagunduko digu.

Joxerra De La Rica Ahobizi

Gure arteko harremanak eta euskararen sarea handitzeko bada, beti izango da ona.

Zer iruditzen zaizu Euskaraldia?

Alde batetik, euskaldun berri garenok armairutik ateratzeko aukera ona izango dugu. Bestetik, euskaldun-zaharrek ere hizkuntza-ohiturak aldatzeko aukera ederra izango dute. Lehenengo hitza ematea beti da zailena, eta Euskaraldia lehen pausoa emateko lagungarria izango da.

ZABALIK



ANDONI URBISTONDO KAZETARIA

Ni ere kutsatu naiz

Urteak zenbatuko banitu, 46tik 30-35 euskara hutsean aritu izan naizela esango nuke. Ez dut froga zientifikorik, susmoa baino ez. Baina aldaketa azken 10-15 urteetan eman da, edo gertatu da nigan. Eta bai, aitortzea onena. Gaztelania gehiago erabili dut azken urteetan, aurrekoetan baino. Ni ere kutsatu naiz. Zergatik? Ez dakit. Susmoak ditut, frogarik ez. Urte luzez egunero zortzi orduz euskaraz hitz egiten zen erredakzio batean aritu, eta etxean lan egitera pasa izana aitzakia gisa erabil nezake. Baina ez da sinesgarria, ondorengo lan harremanetan ere euskara izan baita nire bitarteko ia bakarra.

Etiket, lanbidetik kanpo dago eraldaketa horren funtsa. Lagun artekoan, kafearen orduan, ostiral edo larunbatetako afarietan, igandeetako kirol ekitaldietan. Euskaraz zena, gaztelaniaz egiten da orain. Eta ez dakit zergatik. Are okerrago: ez dakit zergatik jarraitzen ditugun hizketaldiak gaztelaniaz. Hori egiten dugun aldiro euskarari ostikada bat ematen ari garela jakitun. Zenbaitetan amorrua ematen du, euskaldun eta abertzale petoa dena parean eduki, eta gaztelaniaz jardutea. Baina kargu hartzea ez da erraza, eta eraginkorra ote den ere duda. Galdera erraza baita: "hi, zergatik hitz egiten duk gaztelaniaz?" Erantzuna behiak trenari nola begiratzen dion, hala begiratzen dio galdera erantzun behar duenak, galdera egin duenari.

Behin esanda kontzientzia pizteko nahikoa litzatekeela uste dut, baina ez da hala. Gaztelania berriro. Eta berriro. Nekatzen zaren arte. Zein da alternatiba? Norberak dena euskaraz erantzutea. Eta horretantxe nabil. Parekoa euskalduna bada, euskaraz erantzun. Eskatu eta exigitzea alferrikakoa baita. Eta errespetu falta ere bai, eskaera askotan errepikatzen bada. Gertatu izan zait, nik kargu hartu, pertsona berari, eta erantzuna, ni neu sare sozialetan sarri gaztelaniaz aritzen naizela leporatzea. Eta ez dute arrazoirik falta. Jarraitzen nauten askok euskara ez dutelako ulertzen erabiltzen dut. 'Beste aitzaki bat', pentsatuko du bakarren batek... Baina euskaraz lan egiten dut, hitz egin irratian, idatzi komunikabideetan. Jardun jendearrekin. Nire egunerokoaren %80-90 euskaraz da, eta konforme egonda ere, gehiago egiten saiatuko naiz. Azken egunetan Egape ikastola ataritik pasa behar izan dut egun batzuetan jarraian. Eskola umeak irteten direnean haiek euskaraz ezer gutxi egiten dutela jabetu naiz, eta haien hizkuntza ohiturak aldatzea lortzen ez badugu euskara kinka larrian dagoela jabetu. Horregatik, lehenxeago proposatu dizuedan neurria: pareko solaskidea euskalduna bada, euskaraz mintzatu, gaztelaniaz hitz eginda ere. Agian zenbaitzuk konbentzitzea lortuko dugu. Eta lortzen ez badugu, bietako bat, behintzat, euskaraz arituko da.



EUSKARALDIAREKIN BAT, 365 EGUN EUSKARAZ



SAGARDOA
-route

gure jatorria

**Bizi esperientzia
ahaztezinak**

943 336 811

www.sagardoa.eus



AIHOTZ ALBIZU
URNIETAKO HAMAIAKAKOA

**"EUSKALTEGIRA JOAN
ETA IKASTEKO
GONBITEA LUZATUKO
NUKE, OSO HIZKUNTZA
POLITA DA EUSKARA"**



ARANTXA GOENAGA
URNIETAKO HAMAIAKAKOA

**"EUSKARA DA
NIRE EGUNEROKOAN
JOKU GEHIEN
EMATEN DIDAN
HIZKUNTZA"**



FERMIN ZINKUNEGI
URNIETAKO HAMAIAKAKOA

**"GURE HIZKUNTZA
UTZI ETA BESTEENA
HITZ EGITEN HASTEKO
JOERA DUGU. BADUT
KEZKA PIXKA BAT"**



GARBIÑE IZETA
URNIETAKO HAMAIAKAKOA

**"EUSKARAREN
IKASKUNTZAN
LEHENENGO URTEAK
GARRANTZIA
HANDIKOAK DIRA"**



JON JAUREGI
URNIETAKO HAMAIAKAKOA

**"MUNDU
GLOBALIZATUAN
HELDULEKUAK
EDUKITZEA OSO
GARRANTZITSUA DA"**

Euskararen aldeko sentsibilizazio lana

Sanmioletan eta Xoxokako jaietan egin ziren lehen ekitaldi publikoak, Euskaraldia Urnietan ezagutzera emateko. Datozen egunetarako hitzordu sorta prestatzen ari da herriko batzordea. Lemazainak badituzte, zehazki, bi hamaikako.

Aihotz Albizu, Ahobizi

Etxean euskaraz egin izan dut beti eta baita lantoki dudun Andoingo udaletxean ere. Gaur egun edozein has daiteke euskara ikasi eta erabiltzen. Euskaltegira joan eta hitz egiten ikastera gonbidatuko nuke jendea, oso hizkuntza polita baita.

Arantxa Goenaga, Ahobizi

Baserrian jaiotakoa naiz eta ama-hizkuntza izan dut euskara. Baserrian eta lagunekin beti euskaraz egin izan dut eta egunerokoan ere euskaraz egiteko aukera daukat. Gaztelera eta ingelesa bezalako hizkuntzekin alderatuta, euskara da nire egunerokoan joku gehien ematen didan hizkuntza. Euskara hitz zein euskalki asko dituen hizkuntza da eta, batzuetan, hitz egiten ari zaren pertsonaren arabera, gehiago kosta badaiteke ere, era desberdin asko dituen hizkuntza da eta guztiak iruditzen zaizkit politak.

Fermin Zinkunegi, Ahobizi

Ikasten ibili nintzen garaian, aukera izan nuen euskara lantzeko. Behin Urnietara etorrita, musika dela eta ez dela, euskal giroan gustura sentitzen naiz. Egunerokoan, solasaldietan erdaldun bat egotea nahikoa izan ohi da inguruko euskaldunok gure hizkuntza utzi eta besteena hitz egiten hasteko. Hor bai sentitzen dudala kezka pixka bat. Euskara lasaitasunez hitz egin ahal izateko garaia da.

Garbiñe Izeta, Ahobizi

Haur hezkuntzako irakaslea naiz eta argi daukat euskararen ikaskuntzan lehenengo urteak oso garrantzitsuak direla. Horretan familien zeregina handia da. Mota guztietako haurrak izaten ditugu, batzuen ama-hizkuntza euskara da eta beste batzuen gaztelania. Atzerritarrak ere badira eta guztiak euskalduntzen saiatzen gara. Hobekuntzak ikustea oso pozgarria da.

MUAZPI
Harategia

Errekalde, 14. Urnieta
943 00 86 04
665 73 78 71
muazpi@gmail.com

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAIA DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
BATU EGINGO GAITU




iturbe
SUKALDEA ETA ETXEA
Nei
Muebles y Alfareros
IGARATEGI INDUSTRIALDEA 70.
20130 URNIETA
www.mueblesiturbe.com

ITXASPE
Frutategia,
izozkiak eta
gozokiak
Zelaialde, 2 • URNIETA
Tel.: 943 009 427



JULEN GABIRONDO
URNIETAKO HAMAIAKAKOA



KARMINA SENIN
URNIETAKO HAMAIAKAKOA



MIKEL ITURRIA
URNIETAKO HAMAIAKAKOA



MIKEL ORMAZABAL
URNIETAKO HAMAIAKAKOA



NAHIKARI GARCIA
URNIETAKO HAMAIAKAKOA



NAHIKARI SANCHEZ
URNIETAKO HAMAIAKAKOA

**"DAKIENARI,
NAHIZ ETA GUZTIZ
ONDO EZ ERABILI,
SAIATZEKO
ESKATUKO NIOKE"**

**"POLITA DA TALDE
BATEAN EGON ETA
INGURUKOEK
ESATEN DUTENA
ULERTZEA"**

**"TALDEAREKIN,
EUSKAL KULTURA
NAZIOARTEAN
ZABALTZEKO
AUKERA DUGU"**

**"EZ GENUEN INOIZ
PENTSATU LORTU
DUGUN GUZTIA
IZATERA HELDUKO
GINENIK"**

**"FUTBOLARIEN
ARTEAN GEROZ
ETA EUSKALDUN
GEHIAGO IZATEA
ONA DA"**

**"FESTETAKO
EKINTZATAN
EUSKARA
BULTZATZEN
SAIATZEN GARA"**

Jon Jauregi, Ahobizi

Txiki-txikitatik egin izan dut euskaraz familiarekin eta baita koadrilakoekin ere. Lagun artean hitz egin izan dugula, gure artean hikaz aritzen gara, baina generazio berrietan hikaz hitz egiteko ohitura galtzen ari da. Mundu globalizatuan heldulekuak edukitzea oso garrantzitsua dela iruditzen zait. Nortasun erro horietan, euskara euskaldunon artean giltzarri da. Zaindu beharreko zerbaite da euskara.

Julen Gabirondo, Ahobizi

Familian, eskolan eta lagunekin beti euskaraz egin izan dut. Herri kirolen munduan entzuten ez dena gaztelania da. Gehienak baserritarrak izaten dira eta baserritarrek gaztelera gutxi hitz egiten dute.

Euskara oso hizkuntza polita da eta badakigunez, baita erabiltzea ere. Badira euskaraz horren ondo egiten ez dutelako.

lotsa sentitzen dutenak, baina horiek ere atrebitu egin behar ko luketela iruditzen zait. Ez dakitenei zaila da exigitzea. Baina dakitenek, nahiz eta guztiz ondo ez erabili, saiatuz eta pixkanaka konfiantza hartzen joango direla ziur naiz.

Karmina Senin, Belarriprest

Betidanik gustatu izan zait euskara. Behin batean, kaletik nindoala, euskaraz abesten eta kantatzen irakasten zuten tailer batzuen berri izan eta izena ematea erabaki nuen. Probatu eta gustatzen zaidala ikusi dut. Oso polita da talde batean egon eta ingurukoek esaten dutena ulertzea. Adibidez mezara joaten naizenean, eta apaizak bi hizkuntzetan hitz egiten duenean. Zaila da, baina lortu nahi bada dena posible da. Kalera ateratzen naizenean euskarazko hitzak erabiltzen saiatzen naiz: Kaixo, egunon eta antzekoak.

Mikel Iturria, Ahobizi

Euskadi Murias taldean orokorrean nahiko euskalduna dugu. Taldean kanpotar batzuk ere baditugu eta horiekin erdaraz egiten dugu. Baina talde euskalduna da eta ahal den neurrian euskaraz egiten saiatzen gara. Taldearen bitartez, batez ere European, euskal kultura zabaltzeko aukera daukagu. Txirrindularitza erakuslehiu polita da horretarako.

Mikel Ormazabal, Ahobizi

Hezkuntza arloan ikastetxeak euskaratzeko ardura izan dut nik. Bi esperientzia izan ditut. Bata Azkoitia; oso erdalduna zen ikastetxe erlijioso bat euskaratzea egokitu zitzaidan. Eta bigarren esperientzia Urnietan bertan, Salesiar ikastetxean. Momentu honetan hezkuntza munduko kudeaketan nabil eta kudeaketa horren helburua euskara bultzatzea eta inguruko erakundeek euskara erabil-

tzen hastea izango da. Beti tokatu izan zait hezkuntzaren inguruan lan egitea, proiektatzea, indartzea...

Orain dela hogeita hamar urte hasi nintzen irakaskuntzan eta ez genuen inoiz pentsatu orain lortu dugun guztia izatera helduko ginenik. Amestu genuena baino askoz ere gehiago lortu dugu. Egia da ikastetxeok dugula euskararen erabileraren ardura handi bat, baina ez da nahikoa. Saiakera gehiago egin behar da.

Gure gizartea, gainera, ez da orain dela hogeita urte bezalakoa, izugarritzko aniztasuna dago eta aniztasun horretan ez dakit euskararen inguruan tentsionalitatea galtzen ari garen ala ez. Baliabideak jarriz, euskararen aldeko ekimen horiei guztiei babesa ematea eskatuko nuke.

Nahikari Garcia, Ahobizi

Ikastolan hasi nintzen txikitik euskaraz hitz egiten eta

lagunekin ere beti euskaraz hitz egin izan dut. Realean ere saiatzen gara, egia da orain kanpoko jokalariei asko ditugula taldean, baina euskaldunen artean euskaraz egiten saiatzen gara.

Futbolariaren artean geroz eta euskaldun gehiago izatea onuragarria da. Besteengandik ezberdintzen gaituen tresna bat dugu eta hori zelaian erabili beharra dago.

Nahikari Sanchez, Ahobizi

Etxean gurasoak euskaldunberrak dira. Amak ulertzen du, anaiarekin euskaraz egiten dut eta aitarekin batzuetan. Lagunei dagokienez, batzuekin euskaraz hitz egiten dut eta beste batzuekin gaztelera.

Egape dantza taldean gehienbat euskara erabiltzen dugu. eta baita Poxta Zaharren ere. Festetan egiten ditugun ekintza guztietan euskara bultzatzen saiatzen gara beti.



**BANATZAILEA
BEHAR DUGU**

Aiurri astekaria
Urnietan eta Andoainen
banatzeko.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

- Ezinbestekoa da ibilgailua izatea.
- Harremanetarako:
943 300 732
idazkaritza@aiurri.eus

Donostiara, Behobian hasita

LASTERKETA Andoaingo eta Urnietako ehun eta berrogeita hamar korrikalaritik gora helmugaratu ziren, joan zen igandeko lasterketa ezagunean. Kasu bakan batzuetan irteerarekin arazoak izan ziren. Antolatzaileek emandakoak dira datuok

ANDOAIN	
Mikel Rodriguez	01:11:39
Oñatz Gonzalez	01:15:55
Javi Menta	01:17:13
Asier Dominguez	01:18:08
Iban Muñoz	01:18:39
Ivan Piñon	01:19:13
Jaime Real	01:20:20
Axier Etxeberria	01:20:52
Jon Otaño	01:23:00
Andoni Etxezarreta	01:25:50
Mikel Arteaga	01:26:37
Richar Huerta	01:26:45
Jesus Maria Patino	01:26:55
David Elvira	01:26:57
Iker Mujika	01:28:18
Javier Ruiz	01:28:42
Josu Arregi	01:28:44
Imanol Maiza	01:29:03
Xabier Arias	01:29:04
Martin Askarai	01:29:18
Andoni Lanz	01:29:23
Itziar Etxeberria	01:29:36
Evaristo Sancha	01:29:37
Maialen Gurrutxaga	01:30:06
Antton Arruti	01:30:50
Igor Rabadan	01:30:53
Itziar Labaka	01:30:53
Mikel Aranalde	01:31:22
Nestor Escribano	01:31:30
Gorka Salomon	01:32:29
Unai Martinez	01:32:31
Roberto Salgado	01:33:54
Gorka Irazu	01:34:34
David Frutos	01:34:40
Eneko Idigoras	01:34:47
Dioni Agredano	01:35:13
Alfredo Rodriguez	01:35:40
Luis Idigoras	01:36:06
Patxi Nieto	01:36:07
Iker Etxeberria	01:36:16
Aitor Aramendia	01:37:25
Jon Ander Sanchez	01:38:05
Edorta Irazu	01:40:12
Enrique Miguel	01:40:28
Antxon Ubiria	01:40:55
Joserra Irizar	01:41:16
Daniel Gomez	01:42:05
Alberto De Lucas	01:42:34
Aitor Cuartango	01:43:36
Jose Lavado	01:43:59
Unai Irigoras	01:44:21
Joseba Erkizia	01:44:54
Mikel Alkaide	01:44:56
Mikel Collantes	01:45:17
Itziar Poza	01:46:32
Itziar Ipina	01:46:48
Mikel Carredano	01:46:59
Basilio Rosco	01:47:31
Unai Etxeberria	01:47:35
Sebastian Alejo	01:48:00
Miren Nekane Zabala	01:48:16
Sergio Monsalve	01:48:16
Alain Sanchez	01:48:50
Irene Jauregi	01:49:34
Txubi Amatria	01:50:26
M.Jose Goikoetxeaundia	01:50:27
Jon Imaz Perez	01:50:28
Alex De Lucas	01:50:31



Javi Menta andoaindarra. @JAVIMENTA

Juan Carlos Solana	01:50:35
Jose Miguel Sanchez	01:50:39
Igor Olazagirre	01:50:54
Julen Barandiaran	01:51:25
Elena Marcos	01:51:53
Itziar Arruabarrena	01:52:16
Aritz Rabadan	01:52:27
Ane Botas	01:52:49
Unai Azpiroz	01:55:09
Hipólito Barreña	01:55:30
Imanol Lopez	01:55:47
Arkaitz Amenabar	01:56:22
Jose Maria Conde	01:56:34
Virginia Ciganda	01:59:06
Juan Pedro Sánchez	01:59:37
Juan Pablo Valdecantos	01:59:54
Miren losune Etxezarreta	02:00:57
Marian Etxezarreta	02:00:59
Ander Guerrero	02:03:28
Juan Sanchez	02:03:30
Pablo Tejedor	02:04:03
Angel Moreno	02:07:30
Iker Agirretxe	02:10:50
Raquel Conde	02:13:25
Mikel Conde	02:13:26
Antxon Recondo	02:14:03
Emilio Audikana	02:19:13
Gustavo Marques	*12:32:01

URNIETA	
Juan Luis Gomez	01:09:16
Joseba Del Barrio	01:14:02
Unai Martinez	01:14:09
Jesus Mari Altuna	01:14:48
Igor Amantegi	01:14:52
Xabier Zaldua	01:18:30
Unai Lizeaga	01:19:23
Ivan Sardon	01:19:23
Norman Cuenca	01:19:38
Jesus Gonzalez	01:20:15
José Luis Del Sol	01:21:11
Jon Labaka	01:26:38
Raul Fradejas	01:27:51
Itziar Nabarte	01:27:51
Eñaut Aierza	01:27:53
Aitor Iturralde	01:28:04

Xabin Arzelus	01:29:56
Oscar Pavon	01:30:08
Mikel Garmendia	01:30:11
Asier Murciego	01:30:31
Asier Paco	01:32:36
Ander Paco	01:32:36
Periko Juanikorena	01:33:06
Egoitz Moreno	01:35:36
Pedro Arroyo	01:35:41
Joxe Mari Ubillos	01:36:29
Joseba Cisneros	01:38:21
Benjamin Rodenas	01:39:09
Jose Luis Romero	01:40:27
Patxi Cuenca	01:40:57
Unai Iraola	01:43:45
Xabier Olaran	01:43:46
Peru Sanchez	01:43:46
Oier Egaña	01:43:46
Jonathan Lopez	01:43:53
Adrian Garcia	01:44:31
Maddi Irastorza	01:44:31
Joseba Errazkin	01:44:55
Maria Salaberria	01:45:41
Uxue Salaberria	01:45:41
Asier Azpiazu	01:47:27
Lorea Barkaitzegi	01:50:26
Beñat Errazkin	01:51:52
Jon Yurramendi	01:52:02
Uxue Manterola	01:52:03
Juan Bautista Cantero	01:55:42
Bego Villas	01:55:43
Leire Gonzalez	01:55:56
Maite Begiristain	01:56:16
Idoia Esnaola	01:59:07
Enrique Campos	01:59:40
Juanma Taracena	02:08:10
Jose Luis Lopez	02:08:11
Leire Sardon	02:18:07
Leyre Gonzalez	02:30:24



Nerea Hernandez andoaindarra. @IRRISTAKA

PATINATZAILEAK	
F.Javier Basurco	00:52:09
Nerea Hernandez	01:03:53

BEHOBIA GAZTEA	
Maddi Elizasu	00:21:05
Adrian Guillenea	00:20:24
Arixen Unanue	00:20:26
Ion Gabarain	00:22:44
Urko Lozano	00:23:06
Laura Campos	00:24:31

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA, SASKI

FUTBOLA	
PREFERENTE MAILA	
Euskalduna-Trintxerpe	5-0
Urniet-Gure Txokoa	3-1

SAILKAPENA	
1 Euskalduna	24 puntu
14 Urniet	7 puntu

GORENGO MAILA, NESKAK	
Mutriku-Urniet	2-5
Euskalduna-Intxurre	4-2

SAILKAPENA	
1 Urniet	21 puntu
4 Euskalduna	13 puntu

ASTEBURUKO PARTIDAK	
17:00 Urniet-Euskalduna / Lar, 17	

ERREGIONAL MAILA	
Intxurre-Euskalduna	4-0

ASTEBURUKO PARTIDA	
15:30 Euskalduna-Sporting / Lar, 17	

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA	
Urola-Euskalduna	4-1

ASTEBURUKO PARTIDA	
17:15 Euskalduna-Aretxabale. / Lar, 17	

JUBENIL MAILA	
Ostadar-Euskalduna	3-0
Urniet-Lazkao B	4-2

ASTEBURUKO PARTIDAK	
19:15 Euskalduna-Hernani / Lar, 17	



EUSKARALDIA

SASKIBALOIA	
Ganbara Junior-Hernani Txiki	39-55
Ganbara Kadete-Askatuak	23-44

ESKUBALOIA	
SENIOR MAILA	
Urniet-Legazpi	33-23
Urbil Usurbil-Leizaran	37-23

SENIOR MAILA, NESKAK	
Urbil Usurbil-Leizaran	37-23

JUBENIL MAILA	
Urniet-Hettich	22-31
Leizaran-Donibane	35-18

JUBENIL MAILA, NESKAK	
Urniet-Elgoibar	13-20
Eibar-Leizaran	23-22

Lekunberri, Leitza eta Areso BTTn

Zanpatuz Urnietako mendi elkarteak mendi bizikleta irteera antolatu du, datorren azaroaren 24rako. Helduei zuzendutako irteera da, eta 30 kilometroko ibilbidean zehar 1.000 metrotik gorako desnibela izango dute. Goizeko 07:30ean irtengo dira San Juan plazatik.



ZANPATUZ

Arrakasta handiko deialdia

Andoaingo Txirrindularitza Eskolak gazteei begirako jardunaldia antolatu zuen, Basteron. Oihartzun zabala izan zuen deialdiak, 140 lagun hurbildu baitziren. Besteak beste, Movistar Teameko Josune Murillo prestatzailea eta Jon Irisarri eta Alex Aranburu txirrindulari gipuzkoarrak hizlari aritu ziren.



ANDOAINGO



euskara praktikoa

Zu hemen zaude, AEK ere bai

Euskara ikastaroak

Errekalde 1, tarteko oina. Urniet

662 338 747 • urniet@ae.eus

Plazaola, 2. Andoain

943 59 17 04 • andoain@ae.eus



HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 15

URNIETA Antzerkia
Roman eta Julieta antzezlan.
19:30, Sarobe. 19:30. 5 euro.

ANDOAIN Ikus-entzunezkoa
"Denbora izeneko leku bat" izeneko
ikus-entzunezkoa, Joseba Iztuetaren.
20:00, Euskalduna MT.

OSTIRALA 16

URNIETA Ipuin kontaketa
Marisa Taberneroren eskutik.
17:30, Ludoteka. Dohainik.

ANDOAIN Sari banaketa
Gazte Asteko kartel lehiaketa eta
Gomendatzen dizut lehiaketa.
17:30, Gazte Lokala.

ANDOAIN Ikus-entzunezkoa
"Patagoniatik Atakamara Txileko
erliebeen kontrasteak", Andoni Egaña.
20:00, Euskalduna MT.

URNIETA Kontzertua
Nerabe eta Deus ez musika taldeak.
22:00, Sarobe. Dohainik.

ANDOAIN Kontzertua
Mikro irekia saioa.
22:30, Gaztetxea.

LARUNBATA 17

ANDOAIN Irteera
Txuri-urdira Gazte Lokalarekin.
Matrikula: 8 euro.



ANDOAIN "Nagore" dokumentala eta solasaldia
Udalak antolatuta, Asun Casasola Nagore Laffageren ama hurbilduko da
ekitaldira. Hamar urte bete dira Illanesez Irungo neska gaztea hil zuenetik.
18:00, Bastero. Azaroak 21, asteazkena.

IGANDEA 18

ANDOAIN Haur ikuskizuna
Burbuila familia ikuskizuna.
17:00, Bastero. 4 euro.

URNIETA Haur antzerkia
Jon Braun antzezlan.
17:30, Sarobe. 3 euro.

OSTIRALA 23

ANDOAIN Erakusketa
Truchuelo anaien argazki funtsa.
19:00, Bastero. Irekiera ekitaldia.

URNIETA Ikuskizuna
"Erradikalak gara".
21:30, Sarobe. Dohainik.

LARUNBATA 24

ANDOAIN Ospakizuna
Bazkaria, kalejira eta kontzertua.
14:00, Gaztetxea.

IGANDEA 25

ANDOAIN Mobilizazioa
"Emakumeen aurkako erasorik ez".
11:00, Goikoplaza.

ANDOAIN Kontzertua
Alberto Agirre abesbatzari omenaldia.
12:30, Bastero. Gonbidapenarekin.

URNIETA Antzerkia
"Mami Lebrun".
19:00, Sarobe. 8 euro.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN Ekiñe
Kaixo maitia!
9 urte beteko dituzu
azaroaren 17an.
Zorionak eta muxu
potoloak.
Ondo-ondo pasa
bihotza! Etxekoak.



ANDOAIN Eñaut
Azaroaren 18an
Eñautek 8 urte
beteko ditu. Ondo
pasa zure eguna.
Muxu handi bat
famili guztiaren
partetik.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 17 eta igandea 18
MONFORT: Aita Larramendi, 26.
943 300 913. Andoain.

URNIETA
Larunbata 17 eta igandea 18
AGUADO: Nagusia, 21. Eroski
ondoan. 943 550 327. Astigarraga.

GAUEZ BI HERRIETAN
CASTILLA-LARBURU:
Urbietan, 7. 943 552 941. Hernani.



Gazte taldea Zumea plazan, lagunarteko bazkariaren atarian. AIURRI

Gazteen arteko bazkaria Bizilagunak egitasmoaren baitan

Aniztasuna sustatzeko ekimenean urrats berria eman dute Andoainen, gazteen arteko bazkariarekin

Erredakzioa ANDOAIN

Alba Murillo, Maialen Oiarzabal, Nora Stitou, Amaia Armendariz, Jone Perez, Amagoia Lasa, Irati Oiarzabal, Larraitz Otamendi, Noum Zoubairi, Aziz Bouaza, Abdellatif, Nouredine Mennad, Zakariae Sittf, Mohamed Nejjar, Soufiane Amjres, Ana Hernandez, Marta Oteiza eta Alaine Jauregi, guztiak Andoainen bizi dira.

Bizilagunak egitasmoaren bitartez, joan zen igandean elkarrekin bazkaltzeko bat egin zuten. Partaideen artean solasean, hauxe balorazioa: "Bazkaria oso ondo joan zen, giro atsegina eta polita sortu baitzen. Batzuk elkar eza gutzen genuen bistaz, goizean trena hartzetik edota Sorabilla-ko jaietatik, baina gainontzean ez genuen aurretik bat egin". Elkarren izenak ikasten aritu

eta gero, bazkalorduan euren egunerokotasunaz, ikasketez, lan jardunaz, musikaz edota zaletasunez hitz egiteko aukera izan zuten.

Esperientzia ona izan zen, hurrengo bazkaria azaroaren 25ean Sorabillan bertan egingo baitute: "Guztiok pozik ibili ginen, azken finean guztiak bizi gara Andoainen. Batzuetan gure betiko lagunekin ibiltzeko joera dugu eta ezezagun diren pertsonekin mahai ingurua konpartitzeko aukera ez da beti suertatzen. Beraien kasuan, askok ikasketak Herrian eta Erreterian aldean egiten dituzte, beraz Andoainen bertan ez dira asko ibiltzen. Gainera, kanpotik etortzean, lagun harremanak eta sare soziala zerotik eraikitzen hasi behar izaten da, eta ez dute lan makala".

AIURRI ETXEAN JASO NAHI AL DUZU?

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Andoaindarrak bazara Aiurri astekaria, Aiurri hamaboskaria, Ikusbera haur aldizkaria eta hainbat argitalpen jasoko dituzu urtean zehar.

- Urte osoko harpidetza saria: 37 euro.
- Harpidetza egin zaitez: 943 300 732 | idazkaritza@aiurri.eus | aiurri.eus

Opari aproposa

EUSKARALDIAREN HASIERA



AZAROAK 17

LARUNBATA

11:00 Andoain: Jate erraldoiaren prestaketa lanak Goikoplazan. Batzokia, Irunberri, Kotoi, Ontza, Peña Santakrutz eta Zumeatarra elkarteetako kideak patatak txorixoarekin prestatzen hasiko dira.

11:00 Andoain: Kalejira Zumea plazatik Goikoplazara Hamaikakoaren eta trikitilarien parte hartzearekin.

12:00 Andoain: Hamaikakoak bere hamaikakoari txapa jantziko dio kalejiraren amaieran.

12:30 Andoain: Bideoaren estreinaldia Kontzejupean.

13:00 Andoain: Tarta lehiaketa. Etxetik eginda eraman behar da.

13:00 Andoain: Patatak txorixoarekin jate erraldoia Goikoplazan.

14:00 Andoain: Argazki jendetsua.

AZAROAK 18

IGANDEA

11:00 Urnieta: Buruhandien kalejira Bosko Anitz txarangarekin, Denda Berritik San Juan plazara.



12:00 Urnieta: Ahobizi eta Belarriprest txapa banaketa, Egape DTren saioa, pintxo-potea, bertso saioa,...

13:15 Hamaikakoaren adierazpena eta taldeko argazkia.

17:30 Urnieta: Jon Braun haur ikuskizuna Saroben.

AZAROAK 22

OSTEGUNA

17:30 Urnieta: Musika eskolako ikasleen kalejira. Ibilbidea: Musika eskola, San Juan plaza, Etxeberri plaza. Euriarekin Kontzejupean izango da.

AZAROAK 23

OSTIRALA

17:30 Andoain: Basteroko plazatxoan dantza Zunba taldeekin eta dantzariekin.

18:30 Urnieta: Kantujira San Juan plazatik abiatuta.

LaSalle Berrozpe
LSB
Andoain

EUSKARALDIA

Zenbat pozten garen euskaraz
hitz egiten diguzuenean.

